

Leire Ormazabal Urbina

A maila • Aipamena

Kaixo ni Leire naiz, 17 urteko idiazabaldarra. Nire zaletasunen artean musika entzutea azpimarratuko nuke eta irakurketa ere gustatzen zait nahi beste irakurtzen ez dudan arren. Amaitzeko, esan nahiko nuke oso eskertuta nagoela sari hau jasotzeagatik.



LAGUNAK ZAINDU BEHAR DIRA

13 urteko neskatila nahiz eta nire familia izugarri maite dut. Eskolara gustura joaten naiz eta nire irakasgai gogokoena matematika da. Sekretutxo bat kontatuko dizuet: sabelean korapiloak ditut. Bai, korapiloak. Urduri nagoenean igotzen zaizkit eztarrira, arnasa astintzen zait eta listua irenstea kostatu. Baina korapiloak izatearen alderik txarrena negarrarena da. Eztarrira igotzearekin batera, malkoak begietara salto egiten dute. Bultzaka hasten dira elkarren artean, ea zein lehenago irten. Nik geldirik egoteko eskatzen diet, etxera iristean izango dutela denak irteteko parada. Kostatzen zaidan arren, gehienetan joan egiten dira minutu batzuen ostean. Kontua da, batzuetan ez didatela jaramonik egiten, askatasuna nahi dutela eta jendea ohartu egiten dela. Hurrengo lerroetan nire bizitzako pasartetxo batzuk kontatuko dizkizuet, gozatu!

- Eskolara ez, jopee lo gehiago egin nahi dut.
- Mugi!, autobusa galduko duzu eta!
- Banoaaaaa!

Jaiki, gosaldurik eta jantzi ondoren prest nago autobus geltokira joateko. Eskerrak etxetik bi pausora dudan, askotan galduko nuke bestela. Lagun guztiak atzealdean esertzen dira; ni, berriz, aurrerago. Lehenengo egunean ezartzen dira lekuak: lehenengo iristen denak aukeratzen du. Eta ni bigarren geltokian igotzen naizenez, jada hartuta zeuden asko. Gainera, ez nuen eserleku-kiderik aurreneko egunean. Geroago, lagun batek beste herri bateko neska bat aurkeztu zidan eta berarekin esertzen hasi nintzen. Askok maite dut Layla; bidaia erdia atseginagoa egiten zait berarekin, eroso sentitzen naiz. Hala ere, beste erdian bakarrik sentitzen naiz. Kuadrillakoengandik hiru eserlekuk banatzen banaute ere, gure arteko distantzia ikaragarria dela sentitzen dut. Arratsalde eta asteburuatarako planak egiten dituztenean ez dut horren berri izaten.

Kuadrillako lau pertsona gaude ikasgelan: Maitane, Eneritz, Irati eta ni. Nagore eta Aitana ere klasekideak dira, baina nik ez dut harremanik beraienekin. Uste dut ez naizela haien gustukoa, baina ez dut ulertzen zergatik. Ez diet inoiz ezer egin. Agian Eneritz eta Maitanek zerbait esan die nitaz eta benetan ezagutu gabe epaitu naute. Bost neskak ondo moldatzen dira. Niri ez didate jaramonik egiten, agian nire izaeran egongo da zerbait lagunak egitea oztopatzen didana.

Gaur gorputz hezkuntza dugu eskolan. Gustura egiten dut, baina bikoteka edo taldeka jartzeko agintzen zaigunean korapiloa igotzen zait eztarrira. Korapilo hori sabeleko zirrikitu batean gordetzen da eta gutxien behar dudanean igotzen zait eztarria oztopatzerara. -Orain ez, orain ez- errepikatzen diot neure buruari, -malkoak irenstea tokatzen zaizu, gero etxean izango duzu negar egiterik-

Taldetik kanpo sentitzen naiz, nire lagunak ez dute nirekin taldea osatu nahi eta bakarrik geratzen naizenean, irakaslearengana hurbiltzeko indarrak atera behar izaten ditut.

- Ez dut bikoterik ariketa egiteko- esaten diot nik burua makur.

- Lasai, galdetu norbaiti hirukotea osatzeko.

Hau amesgaiztoa, lotsa pasatu behar orain ere. Iratirengana hurbilduko naiz. Bera behintzat saiatuko da gutxiespen aurpegia disimulatzen. Kaka, Eneritzekin osatzen du bikotea. Eneritzek ezin nau jasan, edo hori da bere begiradak esaten didana, behintzat. Tira, indarra hartu eta aurrera. Ordu honen ondoren matematika dugu eta, hori bada nire gustukoa.

Aurrekoa astean gertatutakoaz oroitu naiz bat-batean. Gorputz Hezkuntza saioen ondoren, kiroldegiko gozo makinan txokolatezko galleta poltsak hartzen ditugu noizean behin. Nik bezperan lau euro sartu nituen diru-zorroan: bi txanpon, bina eurokoak. Soinketa orduaren amaieran aldageletan utzitako motxila hartu eta diru-zorrotik txanponak atera behar nituen makinan zerbait erosteko. Nire harridurarako ez zeuden bertan. Ziur nengoen sartu nituela, ez nuen zalantza izpirik. Non egon daitezke? Une horretan ohartu nintzen Eneritz eta Maitane janari makinara gerturatzen ari zirela. Nola liteke? Ez al nuen ba nik entzun ez zutela dirurik ekarri egun horretan? Bi gehi bi lau den moduan ulertu nuen: nire kuadrillakoek dirua lapurtu zidaten. Sutan nengoen arren, ez nintzen gai izan haiei aurre egiteko, denek pentsatuko zuten gezurri hutsa eta ergela nintzela.

Atsedenaldia ere iritsi da eta kuadrillakoak elkartu gara patioan. Batzuk etxeko lanak egiten geratu dira gelan. Ohi modura Malen, Eguzki eta Ariane paseatzera joan dira eraikinari birak emanez, haien ezkutuko sekretuak partekatzeko. Irati, berriz, Nagore eta Aitanarengana joan da. Lau pertsona geratu gara taldean. Halako batean, Aiorak Eneritzi ura edatera lagun dezan eskatu dio. Maitane eta biok bakarrik geratu gara. Ez dakigu zer esan elkarri. Inoiz ez dugu harremanik izan. Gainera, mespretxuz erantzun izan dit behin edo behin. Tentsioa sumatzen da bion artean, ez dakigu zer egin. Bera mugokorrarekin jolasean hasi da. Nik ez ez dut eskolara ekartzen eta lurrari begira geratu naiz. Etengabeak egin zaizkidan hamar minutu soilik igaro dira txirrinak jo duen arte. Eskerrak sufrimendua amaitu den.

Negargura dut, ezin dut sinistu entzun dudana. Banekien Maitane ez zela eroso sentitzen nire alboan, nazka ere senti zezakeela, baina halakorik?

-Ez nazazu berriz bakarrik utzi neska horrekin, hurrengoan nire buruaz beste egingo dut eta!

Larunbata

Sofan nago telebista ikusten, arratsaldeko lau eta erdiak dira eta ama sartu da egongelan. - Maitea, lagunekin irtengo zara gaur?

- Ez dute ezer idatzi WhatsUpp-eko taldean.

PROSA

Jakina, nola idatziko zuten ba ezer beste talde bat edukita.

- Ba, galdetu zuk ea baduten irteteko asmorik. Hilabete daramazu astebukaeran irten gabe.
- Ados, idatziko dut --esan diot ahots tristez--.

Alferrik idatziko dut oraingoan ere, ez didate erantzungo. Beti berdina egiten dute. Askotan ikusten ditut gero sare sozialetan beraien argazki eta bideoak. Instagrameko stories-era igotzen dituzte txorakeriak eta nik ikus dezaket elizan daudela, edo plazako kioskoan.

Mezu indibiduala bidaltzen diedanean ere gogaitu egiten dira, berriro ez egiteko esanez. Nola nahi dute bada haiekin komunikatzea? Argi dago, ez dute nahi. Jende berria ezagutzen dudanean ere berdina gertatzen zait.

Duela gutxi beste neskato bat etorri da gure ikasgelara. Hasieran, berarengana hurbildu nintzen ondo egokitzeke eta bakarrik senti ez zedin. Bide batez, beraren lagun egin nintekeen. Lehenengo bi asteetan ondo moldatzen ginen, asko estimatzen ninduen. Handik gutxira, nire kuadrillakoen lagun izaten hasi zen eta bakarrik utzi ninduen. Ez dakit zer egiten duten besteek jendearen gogoko izateko; hain erraza dirudi! Baina zelako zaila egiten zaidan. Nire izaeragatik izango da, seguru hitz bakoitzean aspertzen dudala jendea.

Hamabost minutu igaro dira eta amari esan diot inork ez didala erantzun. Berak esan dit abenduaren 23a dela eta jada oporretan gaudenez, ziur dagoela lagunak kalera irten direla.

- Prestatu zaitez, kotxea hartu eta herrian zehar begiratuko dugu ea ikusten ditugun. Kalean badaude, beraiekin geratuko zara.
- Ez ama, mesedez. Ez dut kalera joan nahi, ez dute nirekin egoteko inolako gogorik. Etxean geldituko naiz.
- Lagunak zaindu egin behar dira; bestela, bakarrik geratuko zara.
- Ama, ezetz! Ez naiz irtengo.
- Jantzi egingo zara di-da eta bagoaz! Nik esaten dudalako eta kito!--Haserre tonuarekin esan dit azken hori.

Negar batean nire logelara etorri naiz. Badakit amak niretzat onena nahi duela, baina, askotan, sinestea kostatzen zait. Negar zotinka arropaz aldatzen hasi naiz gogoz kontra. Behin prestatu, amarengana joan naiz.

–Goazen. Barkatu lehen oihuka hasteagatik, ez dut zu lagunik gabe geratzerik nahi.

Ez dut bururik altxatu begietara begiratzeko eta ez diot erantzun. Nire momentuko desio bakarra kalean inor ikusi gabe etxera lasai itzultzea da. Nahiz eta gure herria txikia izan, autoa hartu dugu. – Ez dira hemen egongo– edo –ez ditut hemen aurkituko– errepikatu diot neure buruari etengabe. Nire pentsamenduak beteko zirelako asmotan. Korapiloa itzuli da, egia esan amak taldean idazteko esan didanetik ez zait joan. Plazara gerturatzen ari garen heinean, bihotza azkartzen ari zait. Gero eta urduriago nago. –Ez daude hemen, ez daude hemen-- ikusiko ez ditudalako esperantza dut plazan ageri ez direla ikusita. Pixka bat aurrerago... Kaka! Kiosko atzeko gozoki dendan daude. Eta ama ere konturatu da. Jada ez dut irtenbiderik. Ama agurtu dut eta irribarre gozo batez ongi pasatzeko esan dit. Nola pasatuko dut ongi? Arratsalde osoan isilik egongo naizela badakit eta, gainera, hotzez izoztuta.

Hurbildu naizenean jarri duten harridura aurpegia nabarmena izan da. Hala ere, ez da nirea baino handiagoa izan. Esku artean opariak ikusi ditut. Lagun ezkutua egin dute. Korapiloak eztatua zulatuko zidala pentsatu dut une batez, baina kontrolatu egin dut. Gehien izorratu nauena Maitane eta Ihintza opariarekin ikustea izan da.

Ihintza ez dizuet aurkeztu oraindik. Bera izan da kuadrillan izan dudana "lagun" bakarra. Lehenengo Hezkuntza bukatu genuen arte nahiko harreman ona genuen, elkarrekin ibiltzen ginen atsedenaldi eta jangelako denbora librean. Hori bai, Eneritz agertu bezain pronto bere alde jarri eta nitaz barreka hasten ziren. Institutuan ikasgela berean ez gaudenez, pixka bat banandu egin gara.

Aipatu dizuet beste talde bat zutela, ba honen izena Poxingak zen: kuadrilaren barruan sortu zuten baste taldea. Hamazazpi pertsonatik 8k bakarrik hartzen zuten parte. Ainara, kuadrillako bat, beste herri batzuetako jendearekin ibiltzen hasi zen, lau pertsonaren artean beste talde bat sortu zuten haien artean babesteko. Horiek kalera irteteko galdetuz gero arazorik gabe erantzuten zuten. Maitane, Ihintza, beste neska bat eta ni poxingetara sartzen saiatzen ginen. Egia esan, lehian egiten genuen. Gure artean, elkar lagundu orde, zapaldu egiten genuen talde horretan sartzeko. Hala ere, Ihintzarekin ondo moldatzen nintzen txikitatik. Horregatik izorratu nau hainbeste aipatu ditudan biek lagun ezkutua egin izateak. Nik ez nuen arrastorik, eta beste behin ergel aurpegiarekin geratu naiz. Beraz, beraiekin nago orain eta arratsalde osoa egon behar dut gainera. Litxarkeria erosi eta gaztelekura goaz, gure herriko gazteentzako ludoteka da. Bederen ez dut hotzik pasatuko- pentsatu dut nire artean.

Arratsaldea oso berezia izan da, kuadrillako batek bikotearekin moztu du. Lur jota zegoen. Ihintza ere triste egon da. Gabonak gainean ditugu eta familia bakoitzak errealitate ezberdina bizi du. Berak baditu hainbat arazo familiakoekin. Bost pertsona zeuden berarekin eta hasiera batean ez zidaten laguntzen utzi nahi. Sekretua zela zioten.

Geroago, herriko leku altu batera joan gara denak, bagenuen eta barrua husteko beharra. Malenek garrasi egin dio hutsari, orduan ohartu naiz besteek ere badituztela korapiloak. Buila horretan bat askatu nahi zuela ikusi dut.

Denok askatu ditugu korapiloak azkenerako, denon artean ezinegon eta arazoak partekatu ditugu, konfiantza ere sentitu dut haiengan. Tratu txarrez ohartu dira eta WhatsUpp-eko poxingak taldea ezabatuko dutela agindu digute kanpoan geundenei. Pozarren nago, ilusionatuta. Aldaketaren hasiera izan daiteke, beharbada konturatu dira zer egiten ari ziren. Etxera iristean gurasoak besarkatu eta irribarrea ez dut erantzi gau osoan.

17 URTE

Egia da une horretan aldatzen hasi zela egoera. Baina beste aldaketen modura, prozesua motela izan zen. Bidean asko sufritu nuen eta ordutik pertsona bakarrak eskatu dit barkamena. Nork eta min gutxien egin zidanak: Ihintzak. Orain egonkorra da gure kuadrillako egoera. Beste lagun batzuk ere baditut kuadrillatik kanpo; haiek asko maite ditut. Zorionez, jendea aldatu egiten da gu aldatzen garen moduan. Bide honek erakutsi dit geure burua maitatzea dela ardatza, ezin dugulako guregandik ihes egin.